

Eskubaloia ♦ Portlandeko eta Bidasoako jokalariai oporretan dira

Oporrak 3a arte

Urtarrilean lagunarteko partiduak jokatuko dituzte

Gorka Zabaleta / Donostia

ASOBAL LIGAKO bi euskal taldeak, Portland San Antonio eta Bidasoa, oporretan dira, urtarrilaren 3a arte. Azken jardunaldiko emaitzek turroia garrastu egingo zien, baina ziur atseginez hartu dutela hamar eguneko etenaldia. Portlanden batek baino gehiagok lesioak osatzeko aprobeztatu du tarte hori. Irundarrek, berriz, indarberitzeko eta lehen itzuliko gorabeherak ahazteko. Dena den, ez pentsa ezer egin gabe egongo direnik. Portlanden, adibidez, Javier Cariñena prestatzailer fisikoak egunero ordu erdi inguruko korrikalditxoak egiteko aholkatu die lesiorik ez dutenei. Gero, hilaren 3tik aurrera entrenamenduak itzuliko dira, eta lagunarteko hainbat partidu, otsailaren 5a arte ez baitago Liga jardunaldirik, Eurokopa jokatuko baita Kroazian. Han izango dira San Antonioko Josu Olalla eta Peter Norklit eta Bidasoako Patrick Cazal.

Portlandek urtarrilaren 13an jokatuko du lehen lagunartekoa, Zangozan, Garbel Zaragozaren aurka. Hurrengo egunean, hilaren 14an, Lizarran jokatuko du, Bidasoa eta Valladoliden aurka. Urtarrilaren 21ean eta 22an Cas-

tako jokalariai berreskuratu nahi ditu urtarrilean, eta talde joko hobetu, Asobal Kopara sasoi betean iristeko.

Bidasoa-Frantzia urtarrilaren 5ean

Julian Ruizen taldeak lehenago hasiko da lagunarteko partiduekin. Urtarrilaren bostean Frantziako selekzioaren aurka jokatuko dute, Artalekun, arratsaldeko 7etik aurrera. Gero, urtarrilaren 8an, Euskadiko Kopako finalerdia jokatuko du Zarautzen aurka, eta hurrengo egunean finala —irabazten bado—.

Hurrengo Liga jardunaldia otsailaren 5ean izango da. Bidasoak Chapelan jokatuko du eta Portlandek Cangasen —biak Galizian—. Nafarrak une honetan laugarrenak dira sailkapenean, 19 punturekin —Galdarrek aurrea hartu dio azken jardunaldian—, eta Bidasoa zortzigarren, 14 punturekin.



Zupo Ekisoain, San Antonioko entrenatzailea.

tejonon jokatuko du Ekisoainen taldeak, Bidasoa, Garbel Zaragoza eta Ademar Leonekin batera. Hortik Frantziako Tolosara abiatuko dira, Ivry, Toulouse eta Bayern Dornmagen taldeekin batera torneo bat jokatuko.

Zupo Ekisoainek lesionatu-

laburrean

SASKIBALOIA

■ Miami Heatek mendean hartu du Utah Jazz NBAko Konferentziaburuaren arteko lehian

MIAMI HEAT taldeak 74-72 irabazi zion Utah Jazzi, NBAko azken jardunaldiko partidu interesgarrienean. Izan ere, Ekialdeko eta Mendebaldeko liderrak ziren aurrez aurre. Partidua oso orekatua izan zen, eta azken jokaldia arte ez zen irabazlea erabaki. Miami Voshon Lenard hegalarren esku utzi zuen azken saskiratzea egiteko ardura, eta honek asmatu egin zuen, sei segundo falta zirela. New York eta Torontoren arteko partidua ere azken segundoetan erabaki zen, Pat Ewingen saskiratzeari esker (91-90). Jardunaldiko beste emaitzak: Boston 98-81 Atlanta; Cleveland 97-103 Orlando; Chicago 86-106 Minnesota; Golden State 99-103 Clippers.

■ Vladimir Krondaxin hil da, Municheko Joko Olinpikoetarako SESBeko hautatzailea

VLADIMIR KRONDAXINEKIN Sobiet Batasuneko saskibaloiko selekzioak lehen urre olinpikoa eskuratu zuen, 1972ko Jokoetan. SESBeko hautatzailea izan zen 1970-1976 epean, eta, Municheko urrez gain, Europako txapelketa irabazi zuen 1971n eta Mundukoa 1974an. Krondaxin atzo hil zen, San Petersburgon, 70 urte zituela.

■ Italiako Cantu taldeko Enrico Ravaglia joko antolatzailea hil da, auto istripuz

ENRICO RAVAGLIA Cantu taldeko joko antolatzaile gaztea asteazken gauean zendu zen, auto istripu baten ondorioz. Ravaglia etxera bidean zihoan partidua jokatu eta gero, baina berak gidatzen zuen Volvoa errepidetik atera eta bazterra jo zuen. Ravagliak 23 urte baino ez zituen, bere azken partiduan sartutako puntu kopuru bera.

VOLEIBOLA

■ Munduko talde onena Sestaoko Torneoan izango da

ERRUSIAKO Uralotxka taldea Sestaoko XIII. Boleibol Torneoan izango da. Talde honetan jokatzen dute Errusiako emakumezkoen selekzioko jokalaria gehienek. Errusia txapelduorde izan zen azken mundialean. Tenerifeko Construcciones Marichal eta Holandako eta Portugalgo Ligetako liderrek osatzen dute Torneoa. 27tik 29ra jokatuko da.

Hator KANTXARA!

**Abenduaren 24 ostirala
16:30etan
Beotibar pilotalekua**

SALABERRIA-TABERNA
AGIRRE-IMAZ

Gabonetako Torneoa
BELOKI Anaiak
TIRAPU-ARMENDARIZ

**Abenduaren 25 larunbata
17:45etan
Najerako Udal pilotalekua**

Gabonetako Torneoa
NAGORE-ZEARRA
BARBERITO VI-ERRANDONEA

GOROSTIZA-NALDA III
MINGUEZ-GALARZA IV

BBV

Egunkaria

